Banku-kontuari dagokion adierazlea.

**1/6**

Zenbaki horrek produktuaren arriskua adierazten du: 1/6 zenbakiak arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakiak handiena.

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago LABORAL Kutxa, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoari. Gaur egun, 100.000 euroko gehienezko zenbatekoa bermatzen dio Funts horrek gordailugile bakoitzari.

PUBLIZITATEA

# Super Bat

KATALOGOA



**Edozein bulegotan** truka ditzakezu zeure puntuak, baita **Telebankan** ere: **900 929 029.**

LABORAL kutxa



70
PUNTU

**Save the Children**

Nahi baduzu, erabili zure puntuak hezkuntza-proiektu honi laguntzeko. Haurrak ikasgeletara inguratzea da proiektuaren helburua. Kalitateko irakaskuntza izan dezakete zure eta beste pertsona solidario batzuen laguntzari esker.

70
PUNTU



# BIZIPOZA

Egoera zailetan bizi den jende askoren bizimodua hobetzeko dihardute zenbait elkartek, eta Bizipoza izeneko taldeak biltzen ditu guztiak. Zure puntuak oso lagungarriak dira taldearentzat, eta jende askori egingo diote mesede. Animatzen zara?



45
PUNTU

# KOLOREZTATZEKO KIKARA

Pertsonalizatu zure kikara, parekorik izan ez dezan!
Kanpoko karkasak estalki garden ateragarria du, nahi duzun irudi-orri koloreztatua sar dezazun.

- Edukiera: 320 ml.
- Pintatzeko 4 irudi-orri eta koloretako 4 arkatz ditu.



55 PUNTU

# ITSULAPIKOA

Dirua aurrezten ez ezik, ingurumena zaintzen ere lagunduko dizu. Txerritxo-itxurako nature lineako itsulapiko hau banbu ABS zuntzez eginda dago.

- Neurriak (garaiera x zabalera): 10 x 6,8 cm.
- Pisua: 0,036 g.




80
PUNTU

# SANDWICH-ONTZI
## BERRERABILGARRIA

Quokka sandwich-ontzia ezin hobea da abentura guztietan zure janaria eramateko. Pareta bikoitzarekin eginda dago, eta oso arin eta sendoa da. Gainera, ez du BPArik, eta ez ditu usainak eta zaporeak xurgatzen. Eraman motxilan!

- Neurriak (garaiera x zabalera x sakonera): 67 x 180 x 160 mm.




90
PUNTU

# BOTILa
## BERRERABILGARRIA

Quokka botila berrerabilgarriarekin ondo hidratatu ahal izango zara beti. Tanta-kontrako sistema du, desmuntagarria da eta galtzen ez den estalkia du. Inoiz baino sendoagoa eta arinagoa da, ez du BPArik eta zure izena idatz dezakezu bertan!

- Edukiera: 430 ml.
- Neurriak: 68,5 x 175 mm.

Haurrentzako sarrera
(0-12 urte)

100
PUNTU

12-16 urte bitartekoen
sarrera

125
PUNTU








# sarrera
## DONOSTIAKO AQUARIUMERAKO

Ezagutu Europako lehen museo ozeanografikoetako bat! Esperientzia honi esker, bertako 31tik gora akuarioak ikusi ahal izango dituzu, bai eta horietako Kantauriko eta Atlantikoko askotariko espezieak eta bi zezen-marrazo ere. Horrez gain, museoa bisitatu ahal izango duzu, Euskadiko eta Donostiako itsas historia, iraganeko arrantza eta marinelek erabili ohi zituzten itsasontziak ezagutzeko. Ez galdu aukera!

Sarrerek urte eta erdiko (18 hileko) baliozkotasun-denbora dute, eskatzen diren egunetik zenbatzen hasita.




235
PUNTU

# Liburua: *Alicia en el País de las Maravillas*

Ezagutu Aliziaren istorioa, mundu bitxi eta arrotz batean sartu eta gizaki eta izaki oso bereziak ezagutzen dituen neskatoarena. Liburu ahaztezina, zalantzarik gabe!




# Liburua:
## *MIHI-PUNTAREN PUNTAN*

Egutegi-formatuko liburu bat. Urtea hilabete eta urtaroetan banatuta dago, eta egun bakoitzean igarkizun bat du. Jolastu eta ikasi modurik dibertigarrienean!

335
PUNTU



# HARI GABEKO sagua

Hona hemen Kult Helium WLa, jokoetarako sagurik ezagunena! 6.400 DPI ditu eta jokoetarako nahi duzun sentikortasuna aukeratu ahal izango duzu. Gozatu topera iraupen luzeko bateriarekin! Atzerako 7 koloreko argiztapenak sekulako distira emango dio zure idazmahaiari. Jokoetarako iraunkortasunari esker, aliatu ezin hobea da, eta berdin erabil daiteke PCan, Playstationean edo Xboxean.




# ARTICA GREED HARI GABEKO ENTZUNGAILUAK

Ezagutu soinu-askatasuna eta murgildu entzumen-esperientzia paregabean, mikrofonoz hornitutako NGS Artica Greed hari gabeko entzungailu estereoekin. Azken belaunaldiko Bluetootha dute, 10 metrorainoko irismenarekin, zure musikarik gogokoenaz 12 orduz ere goza dezazun.
Kontrolatu musikaren erreprodukzioa eta erantzun erraz telefono-deiei. Gainera, entzungailuen diadema doigarriak, kuxin barrubigunek eta belarri-babes birakariak erosotasun handia emango dizute.




350
PUNTU

# KOPETA-
ARGIA

Argitu zure abentura eta kirol-jarduera guztiak kopetan jartzeko argi kargagarri horrekin. Honako hauek ditu: 3 W-eko XPE LED zuriak, 1.200 mAh-ko bateria, USB kablea eta uraren kontrako IPX4 babesa. Neurriak: 8 x 8 x 6 cm.



360
PUNTU

# Bateria
## ERAMANGARRIA

Eraman zure gailuak beti kargatuta kanpoko bateria lagungarri honekin. Kortxoz eta gari-kainaberaz egindako karkasa du.

- Hari gabeko kargagailua integratuta, 5 W-ekoa.
- Ahalmena: 5.000 mAh; karga-egoeraren adierazlea du.
- USB irteera bikoitza eta C motako sarrera.
- Balio-bizitza: 500 karga-ziklo gutxienez.
- RoHS estandarren arabera eginda dago eta EE araudia betetzen du.

385
PUNTU




# HORTZETAKO
## ESKUILA ELEKTRIKOA

Babestu hortzak, hortzetako eskuilarik dibertigarrienarekin. Ezin hobea da, ahaleginik eta nekerik gabe erabiltzeko.

- 30 segundoko tarteak.
- 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.
- Ordezko 4 buru eta beste 4 gehigarri.
- 2 minutuko tenporizadorea.
- IPX7 iragazgaiztea.
- Azken moduaz oroitzeko memoria.
- 3 eskuilatze-modu.
- USB karga.




IBIZA

# Iratzargailu digitala

Eguna hastea askoz errazagoa izango da iratzargailu digital honekin. Kolore anitzeko pantaila du, eta USB bidez kargatzeko aukera. Ikusi ordua, data eta alarmaren ordua begiratu batean!

- Ordua zenbaki handitan.
- 3 mailako bolumen pertsonalizagarria.
- Testuaren eta atzeko planoaren kolore pertsonalizagarriak.
- FSC ziurtagiria: bilgarriaren papera eta kartoia baso-kudeaketa iraunkorretik datoz.

455
PUNTU




# EUROFEST
# Kirol-kamera

Atzitu zure abentura guziak kalitate handiko (HD 720 px) kirol-kamera honekin. Hauek ditu:

- Karkasa: 30 m-ko sakoneraraino urperagarria.
- Kamera kaskoan, gerrikoan edo bizikletaren heldulekuan lotzeko 14 osagarri.
- Kamera buruan eta soinean eramateko uhal doigarriak, edo 360º-ko egokigailu birakaria.
- Argazki-kamera: Full HD 1.080 px-ekoa.
- 32 GB-rainoko mikro SD txartelerako arteka.
- LCD pantaila: 5,08 cm-koa (2”).
- Bateria: 900 mAh-koa.

470
PUNTU




# WILSON NBA DRV PLUS
# SASKIBALOIKO BALOIA

Wilson NBA DRV saskibaloiko baloiarekin ez duzu partida bat ere galduko!
Kalitate handiko kautxu mikrozelularrez eginda dago, errendimendurik onena emateko. Blokeo-balbula du, aireari hobeto eusteko. Neurria: 7.

650
PUNTU

# sarrera
## WARNER PARKERAKO

Sartu ausartentzako lurralde batean! Sartu Warner parkean! Madrilgo parke tematiko honetan hainbat atrakzio eta ikuskizun aurkituko dituzu, zure pelikularik gustukoeneko protagonista senti zaitezen. Bertan, atrakzio liluragarrietan sartuko zara, eta zure superheroirik gogokoenak ezagutuko dituzu. Animatzen zara?

Parkera sartzeko sarreren erabilera eta aprobetxamendua parkea 2025eko denboraldian jendearentzat irekitzeko egutegiaren eta ordutegiaren arabera egokituko dira (2025eko urriaren 31n eta azaroaren 1ean izan ezik).




690
PUNTU

# imanix
## 32 PIEZA

Murgildu aukera mugagabeen mundu batean, 3Dko eraikuntza beste maila batera eramateko diseinatutako bloke magnetikoekin. Imanix ezin hobea da kontzentrazioa eta trebetasun motorrak indartzeko. Sekulako bultzada adimenerako eta ikaskuntza interaktiborako.

- Kalitate handiko plastiko ez-toxikoarekin eginda dago.
- Ezin hobea da 3 urtetik gorako esploratzaile txikientzat.




LALIGA 24/25

# FUTBOLEKO BALOIA

Senti zaitez nazioarteko futbol-izarrak bezala! Pumak eta LaLigak 2024-2025 denboraldirako sorta berria atera dute. Baloietan LaLigaren kolore korporatiboak nabarmentzen dira, baita pop arteko eta kaleko grafitiz betetako elementuak ere, kolore-leherketa bizi-bizia osatuz.

- Makinaz jositako panelez eginda daude.
- LaLigaren logoa estanpatuta dute.
- 3Dko testurak dituzte, itsaspena errazteko eta hobeto kontrolatzeko.




# PHILIPS HARI GABEKO BLUETOOTH ENTZUNGAILUAK

Bururatzen zaizu ezer praktikoagorik karga-estutxea duten hari gabeko entzungailu hauek baino?

- Belarri barruko doikuntza.
- Izerdia eta zipriztinak jasaten dituzte (IPX4).
- Karga-estutxe txiki-txikia.
- Entzungailu bakarrarekin egiten ditu deiak, mono moduan.
- Seguru eta eroso finkatzen dira belarrian.
- 18 ordura arteko erreprodukzioa.




# NIKE ACADEMY TEAM 30 L-KO MOTXILA

Eguraldi txarra ez dadila entrenatzeko oztopo izan, eta ez dezala zure ekipamendua busti. Diseinuak Nike Storm-FIT teknologia du, euritik hobeto babesteko, eta poltsaren sareak transpiragarritasuna eta aireztapena eskaintzen ditu eguraldi oneko egunetan.

- Nike Storm-FIT teknologiari esker, ez da erosotasunik galtzen kontrako baldintza meteorologikoetan, hala nola haizea edo euria egiten duenean.
- Alboko poltsikoak itxitura du.
- Sorbaldetako uhalak barrubigunak eta erregulagarriak dira.
- Neurriak (garaiera x zabalera x sakonera): 48 x 33 x 18 cm.



865
PUNTU

MAIP060
# LO-zakua

Gozatu atsedenik onenaz zure txangoetan, mikrozuntzezko betegarria duen momia-motako lo-zaku honi esker. Bi noranzkoko kremailerak, lokarridun eta doikuntza-topedun txanoa eta hotzaren kontrako lepokoa eta hegala ditu. Estutzeko uhalak eta heldulekua dituen poltsa ere badakar.

- Lo-zakuaren neurriak: 210 x 50/80 cm.
- Poltsaren neurriak (luzera x diametroa): 34 x 14 cm.

960
PUNTU



# Patinetea

Gozatu abiada bizian, kalitate handiko altzairu laranjaz egindako patinete honekin. Gomazko helduleku ergonomikoak ditu, hobeto oratzeko, baita berno bikoitzeko besarkagailua eta oinarri irristagaitza ere. Gurpilak PVCzkoak dira, 10 cm-koak, eta atzeko oin-balazta du.

- Patinetearen neurriak (garaiera x zabalera x sakonera):
  69 x 47 x 83 cm.
- Oinarriaren neurriak: 37 x 10 cm.




1.030
PUNTU

FW0125
# Erloju adimenduna

Erloju adimendun horrekin dena izango duzu eskura.

- Mezuak jaso izanaren jakinarazpenak.
- Telefono-deiak Bluetooth bidez jasotzeko aukera.
- Musika-erreproduzigailua.
- Urratsen, distantziaren eta kalorien jarraipena.
- Askotariko kiroletarako.
- Bihotz-maiztasuna, arteria-presioa eta odoleko oxigenoa.
- Iragarpen meteorologikoa.
- Arnasketaren entrenamendua.
- Koloretako pantaila: 4,36 cm-koa (1,72").
- IP67 iragazgaiztasuna.




# TWIN 3.0
# BLUETOOTH BOZGORAILUA

Bozgorailu honekin, soinu-kalitaterik onenarekin erlaxatu ahal izango zara, nahi duzun lekuan.

- 10 h-ra arteko autonomia eta 10 m-rainoko irismena ditu.
- Banakako bi bozgorailutan bana daiteke.
- Musika-potentzia handia du, 30 watt-ekoa: jarri zure erara 2 x 15 watt-eko Bluetooth bozgorailu-multzo bat bezala, eta sortu bi noranzkoko soinu ezin hobea.
- Ura jasaten du: IPX7 (hautsa sartzearen eta uretan aldi batez murgiltzearen aurkako babesa).



1.555
PUNTU

HAURRENTZAKO K61
# Erloju adimenduna

Lortu erloju adimendunik osoena!

- GPSa.
- Bideodeia.
- 4G-ko dei-funtzioa.
- Larrialdiko SOS deia.
- Denbora errealeko txata.
- Ura jasaten du: IP67.
- Kokapena arakatzeko aukera.
- Kamera.
- Iratzargailua.
- Ukipen-pantaila: 3,81 cm-koa (1,5").
- Bateria: 700 mAh-koa.
- Neurriak (garaiera x zabalera x sakonera): 15,24 x 5,08 x 3,81 cm.

**2.965**
**PUNTU**




## SAMSUNG GALAXY A16
# Telefono adimenduna

Eskuratu Samsungen telefono adimendun berria eta hobetu zure bizi-kalitatea.

- Sistema eragilea: Android.
- Pantaila: Super AMOLED, 16,91 cm-koa (6,7”).
- Kamera anitzeko sistema.
- Kamera nagusia: 50 Mpx-ekoa.
- Aurreko kamera: 13 Mpx-ekoa.
- Bateria: 5.000 mAh-koa.
- Azelerometroa.
- Hatz-markaren sentsorea.
- Geomagnetikoa.
- Hurbiltasun birtualeko sentsorea.
- Neurriak (garaiera x zabalera x sakonera): 164,4 x 77,9 x 7,9 mm.







## SAMSUNG GALAXY TAB A9+
# TABLETA

Teknologiaz bete-betean gozatzeko behar duzun guztia du tableta honek. Ikusi zer prestazio dituen:

- Sistema eragilea: Android.
- Pantaila: WUXGA, 27,82 cm-koa (11").
- 4 GB-ko RAM memoria eta 64 GB-ko biltegiratze-ahalmena.
- Bereizmena: 8 Mpx-ekoa.
- Kamera nagusia: 8 Mpx-ekoa.
- Aurreko kamera: 5 Mpx-ekoa.
- Azelerometroa.
- Giroskopioa.
- Geomagnetikoa.
- Neurriak (garaiera x zabalera x sakonera): 168,7 x 257,1 x 6,9 mm.

5.930
PUNTU




# NINTENDO SWITCH
# KONTSOLA

Nintendo Switchekin, aldean eramango duzu beti etxeko kontsolaren esperientzia. Etxean, telebistari konektatutako oinarri baten gainean egoten da Nintendo Switch, nahi duzunarekin jolas zaitezen. Nintendo Switch kontsola oinarritik kenduz gero, berriz, modu eramangarrira igaroko da zuzenean, eta jokoa aldean eramango duzu, zoazen lekura zoazela, 17,74 cm-ko (6,2") ukipen-pantaila kapazitiboarekin.

| Garaiera (cm) | Neurria |
|---|---|
| 155-170 | S |
| 165-180 | M |
| 175-190 | L |

8.960 PUNTU




# ORBEA ONNA BIZIKLETA

Hona hemen zure ibilbide eta txangoetarako bizikletarik onena.

- Koadroa: Onna Alloy aluminiozkoa.
- Balaztak: Shimano MT200 diskozko hidraulikoak.
- Transmisioa: Shimano Tourney TX800.
- 8 abiadura.
- Urkila: SR Suntour XCE 28 Coil 100 mm QR.
- Gurpilak: 73,66 cm-koak (29").
- Aurreko esekidura.
- Eskulekua: Alloy Flat 31,8 mm x 720 mm-koa.
- Jarlekua: Essax Adv soft 135 mm-koa, bereziki Orbearentzat egina.

## BALDINTZA OROKORRAK

### 1. Programan parte hartzea
Super Bat kontuaren libreta bat duten LABORAL Kutxako bezero guztiek hartuko dute parte kanpaina honetan. Arauak neurriz gain edo maulaz erabiltzen badira, galdu egingo dira metatutako puntuak.

### 2. Puntuak lortzea
Liburuxka honetan agertzen den baremoaren arabera lortuko dituzte bezeroek artikuluekin trukatzeko puntuak.
Puntuak honela emango dira: hilean behin Super Bat kontu bakoitzaren batez besteko saldoa kalkulatuko da, eta 150 euroko puntu bat emango da (gehienez 70 puntu). Bestalde, Super Bat kontuaren titularrek puntu gehiago lortu ahal izango dituzte, LABORAL Kutxak diseinatutako kanpaina edo sustapenetan parte hartzen badute. Kanpaina eta sustapen horietan eskuratutako puntuak kontuak berak hilean sortutako puntuei erantsiko zaizkie, eta eragin berberak izango dituzte. Aldian behin, trukatzeko dituen puntuen berri emango zaio bezeroari. Lortutako puntuak indarrean dagoen katalogoko artikuluekin edo LABORAL Kutxak egiten dituen sustapenetan soilik trukatuko dira.

### 3. Kanpainaren iraupena
Katalogo honetako artikuluak 2025eko abenduaren 31ra bitartean lortutako puntuen truke eskuratu ahal izango dira. Artikuluak eskatzeko (puntuen ordez trukatzeko) aldiak 2025eko otsailaren 15etik abenduaren 31ra bitartean izango dira. Eskatzeko epealdiaren hasierako edo amaierako eguna baliogabea bada, aurreko egun baliodunean egin ahal izango da eskaera.
LABORAL Kutxak eskubidea izango du epe horiek aldatzeko.

### 4. Artikuluak eskatzea
Puntuak LABORAL Kutxaren edozein bulegotan truka daitezke, edo Telebankan (900 929 029). Bezeroak 45 eguneko epea izango du artikulua aukeratutako bulegoan jasotzeko, eta, 30 egunekoa, bidaia bada.

### 5. Artikuluen bermea, itzulketa eta ezaugarriak
Artikuluren bat agortzen bada, antzeko ezaugarriak eta kostua dituen beste bat emango zaio bezeroari haren ordez. Artikuluak akatsen bat badu, edo LABORAL Kutxak hura eskatu eta ematean hutsegite edo nahasteren bat gertatzen bada, bezeroak itzuli egin ahal izango du, jasotzen duenetik gehienez ere 15 egun baliodunetan. Gainera, jaso duen egoera berean itzuli beharko du (jatorrizko bilgarrian...). Hori gertatuz gero, erabilitako puntuak itzuli egingo zaizkio.
Sustapen honetan eskaintzen diren gaien bermea fabrikatzaileak ezarritakoa izango da. Zentzu horretan, artikulua ematen denetik 15 egun igarotakoan, fabrikatzaileari, haren ordezkariari edo dagokion kontzesionario ofizialari egin beharko zaizkio akatsen edo funtzionamendu okerraren ondoriozko erreklamazioak. LABORAL Kutxak ez du erantzukizunik izango eta ez du esku hartuko gai horietan.

### 6. Etekinak egoztea
Artikulua eskuratzeak esan gura du kapital higigarriaren etekinak jaso direla eta horiei dagozkien zergak ordaindu beharko direla. Zerga-ondoreetarako, artikulua lortzetik sortutako etekin-egozketari buruzko informazioa errenta-aitorpenerako datu-ziurtagirietan helduko zaie bezeroei.
Elkartasunez ematen diren puntuak ez dira fiskalki kengarriak.

### 7. Super Bat puntuen kanpaina aldatu edo bertan behera uztea
LABORAL Kutxak eskubidea izango du, Super Bat puntuen esleipena bertan behera uzteko eta kanpaina honetako baldintzak aldatzeko. Hala eginez gero, aldaketa horien berri emango du, Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularrean agindutakoaren arabera.

| Kod. | PRODUKTUA | DIRUTAKO BALIOA | ITN-A (*) | <u>UTB-A (**)</u> |
|---|---|---|---|---|
| 1 | SAVE THE CHILDREN | 4,65 € | % 0,53 | **% 0,53** |
| 2 | BIZIPOZA | 4,66 € | % 0,53 | **% 0,53** |
| 3 | KOLOREZTATZEKO KIKARA | 2,45 € | % 0,44 | **% 0,44** |
| 4 | ITSULAPIKOA | 3,65 € | % 0,53 | **% 0,53** |
| 5 | SANDWICH-ONTZIA | 4,75 € | % 0,48 | **% 0,48** |
| 6 | BOTILA BERRERABILGARRIA | 6,24 € | % 0,55 | **% 0,56** |
| 7 | DONOSTIAKO AQUARIUMERAKO HAURRENTZAKO SARRERA | 7 € | % 0,56 | **%0,56** |
| 8 | DONOSTIAKO AQUARIUMERAKO 12-16 URTEKOENTZAKO SARRERA | 10 € | % 0,64 | **% 0,64** |
| 9 | *ALICIA EN EL PAÍS DE LAS MARAVILLAS* LIBURUA | 18,42 € | % 0,63 | **% 0,63** |
| 10 | *MIHI-PUNTAREN PUNTAN* LIBURUA | 21,69 € | % 0,62 | **% 0,62** |
| 11 | HARI GABEKO SAGUA | 23,75 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 12 | ARTICA GREED HARI GABEKO ENTZUNGAILUAK | 23,93 € | % 0,56 | **% 0,56** |
| 13 | KOPETA-ARGIA | 24,64 € | % 0,56 | **% 0,56** |
| 14 | BATERIA ERAMANGARRIA | 25,5 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 15 | HORTZETAKO ESKUILA ELEKTRIKOA | 27,2 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 16 | IRATZARGAILUA | 28,08 € | % 0,56 | **% 0,56** |
| 17 | EUROFEST KIROL-KAMERA | 32,3 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 18 | SASKIBALOIKO BALOIA | 33,15 € | % 0,56 | **% 0,56** |
| 19 | WARNER PARKERAKO SARRERA | 46,22 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 20 | IMANIX | 49,03 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 21 | LALIGA BALOIA | 49,1 € | % 0,57 | **% 0,56** |
| 22 | PHILIPS BLUETOOTH ENTZUNGAILUAK | 50,97 € | % 0,56 | **% 0,56** |
| 23 | NIKE ACADEMY MOTXILA | 60,42 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 24 | LO-ZAKUA | 61,2 € | % 0,57 | **% 0,56** |
| 25 | PATINETEA | 68 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 26 | ERLOJU ADIMENDUNA | 73,01 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 27 | TWIN 3.0 BLUETOOTH BOZGORAILUA | 108,03 € | % 0,57 | **% 0,57** |
| 28 | HAURRENTZAKO ERLOJU ADIMENDUNA | 110,49 € | % 0,57 | **% 0,56** |
| 29 | SAMSUNG GALAXY A16 TELEFONO ADIMENDUNA | 210,8 € | % 0,57 | **% 0,56** |
| 30 | SAMSUNG GALAXY TAB 19+ TABLETA | 212,49 € | % 0,57 | **% 0,56** |
| 31 | NINTENDO SWITCH | 421,33 € | % 0,57 | **% 0,55** |
| 32 | ORBEA BIZIKLETA, 29'-KOA (S) | 637,47 € | % 0,57 | **% 0,54** |
| 33 | ORBEA BIZIKLETA, 29'-KOA (M) | 637,47 € | % 0,57 | **% 0,54** |
| 34 | ORBEA BIZIKLETA, 29'-KOA (L) | 637,47 € | % 0,57 | **% 0,54** |

*** Interes-tasa nominala kalkulatzeko adibide argigarria. Kontuan hileko batez besteko saldo konstantea 6.000 eurokoa dela emanez, titularrak 10 hilabete beharko ditu «iratzargailua» eskuratzeko beharrezko 400 puntuak biltzeko (10 hilabete x 40 puntu hileko). Iratzargailuaren diru-balioa 28,08 eurokoa denez, interes-tasa nominala % 0,56koa da [erabilitako formula = 28,08 / 6.000 * (12 / 10)].**

**** <u>UTBaren % -a</u>, baldin eta urtebetez hilean batez beste 6.000 €-ko saldoari eusten bazaio etenik gabe.**

**Katalogo honetako elementuak gauzazko ordainsaritzat hartuko dira, eta dagokion zerga ezarriko zaie. Ez dago eskudirutako ordainsaririk.**

LABORAL
kutxa